



MUSIKA

# Kalekumeak!



## LA URBE CHULERÍA, JODER!

AUTOEKOIZPENA, 2024

IKER BARANDIARAN

**B**izkaiko Ezkerraldean nerabezaro berantiarrean sortutako Desorden taldeak nire arreta piztu zuen haien gaztetasunean punk-rocka sinesgarri eta fresko bilakatzen zutelako, baita harribitxia den haien abeslari Iratxeren jarreragatik ere. Gogoangarriak ziren haien kontzertuak eta erakusten zuten jarrera.

Taldea desegin zuten, baina orain, urte batzuk pasata, Iratxe abeslariak talde berri hau sortu du Ezkerraldeko Miriam eta Eneko "Alda"-rekin, eta Aramaioko Antxonekin (Volquete, 112). Kontzertuak barra-barra egiten hasi dira, eta gehiago itxaron gabe, Haritz Harreguyren estudioa jo dute sei kantu hauek grabatzera. Emaizta begi bistan

dago. Gauzak argi dituzte eta denbora oso azkar doa, ezta?

Kalekumeak dira erabat, eta rock-and-rollak izan duen lotsagabekeria non-nahi konbikzioz aldarrikatzeaz gain, "geriatrizatutako" eszena iraultzeko helburu argia dute, mahaian kolpea joz nagusi zein gazteak behingoz iratzartzeko asmo sutsuarekin.

*Hacer algo* da horren adibide, aho-bilorik gabekoa: 1980ko hamarkadako punk melodikoa tenpo erdiekin, ostia txarrekoa eta zirikatzailea. *Infernua* ilunagoa da, baina era berean itsaskorra, rocka beti zainetan. *Tus amigos*-ek badu Anticuerpos eta Mamen-ekin ahaidetasunik, gerora bizkortzen bada ere *hit!* bat bilakatuta.

Diskoa kaleratu aurretik argitaratutako bideoklipeko pieza da *Geltokia*, diskoaren ardatza edo, hobe esanda, erdia: balada dela diote taldekideek, baina hau ere barneko indar eta amorru handia azaleratzen duen kantatarz urratzailea da. Bideoak, gainera, emaitza musikal desberdina izanda ere, taldearen bestelako irudia ere erakusten du; originala da. *Ez da taldearen ikur eta asmo erakusle argia: punk-rock azkar eta zirikatzailea. No profanación* handia da, beste *hit!* bat, Sumision City Blues taldekoei karta jokoan irabazi eta horren onena hartuta bere egiten dutena. Azkenik, *Última hora* da kontzertuei bukaera emateko kantu bortitz eta eztandagarria. Biba zuek eta zuen harropuzkeria zirikatzailea! ●